DOHAN ZEURE ETXERAKO.

1990ko Martxoa/14. Alea

EIBARKO UDALA EUSKARA BATZORDEA


...eta Kitto!

...eta kittoren ezaguera generazioka.

EZAGUTZEN DUTE	GAZTE	HELDUAK	ZAHARRAK	GUZTIRA
BAI %	65'32	61'08	56'33	61'68
EZ %	34'67	38'91	43'66	38'31

...eta kittori buruzko eritziak.

Eritzi orokorra	Gustokoak	Kentzeko	Gerora begira
Ongi 46'65%	Argazki inkest 66'37% Pertsonai ekarriz. 29'2%	Ezerrez 95'53% Iragarkiak 4'46%	Orri gehiago 30'76% kirol " 20% Kultura albisteak 7'69% Gazteen " 13'07%



Irakurleei galdetuz "...eta kitto" hobetuz

Pasa den 1989ko Abenduan "...eta kittok" urtebete osoa kunplitu zuen eta denbora honetan argi geratu da "...eta ditto" Eibardo hutsunean esparru bat betetzen duela, alegia, euskera hutsean egiten den aldizkari bakarra izatearena. Horrela urte luzea igaro ondoren "...eta kitto"ri buruzko indesta herrikoi bat egitea bururatu zitzaigun, hilabeteroko honen gain zeuon eritziak jasotzeko asmoz. Inkesta honen helburua, inkestatuad generazioka sailkatuz, "...eta kitto"rekiko ezaguera, eritzi orokorra, zer den gustokoena, zer kendu behardo litzatekeen eta gerora begira zer-nolako aldizkaria nahiko litzatekeen jakitea zen. Beraz, abenduaren 23an goiz partez, Urkizu, Elgeta bidea, Errebal, Urdi, Amaña eta Untzagako kioskoetan banandu ginen opinio ezberdinetaz jabetzeko. Guztira 647 pertsona izan dira inkestatuak eta datuak hortxe dituzue..

1989ko Abenduaren 23an, larunbata, goizeko 10etatik eguerdiko 2etara "...eta kitto" aldizkarikoak Eibarko kiosko ezberdinetan banandu ginen hileroko honi buruzko inkesta herrikoi bat egiteko. Asmoa irakurzaleon eritzia jasotzea zen eta eibartarroi eginiko galderen erantzunak jasotzea, balorazio eta konklusio argiak jorratzeko, gerora begira aldizkariaren arrakasta eta sendotasuna zihurtatzeko. Horrela era guztietako eritziak eta aitzakiak bilduz, emaitzaren kalitatea hobetu ahal izateko neurri egokienak aurkitzen eta hartzen saiatuko gara, ahalik eta irakurzale gehien interesa pizteko, era berean "...eta kitto"ren bilakaera eta hedapena bultzatuz.

Eritziak eta komentarioak ugariak eta ezberdinak jaso genituen, baikorrak eta aldekoak eta ezkorrak ere, ez delako posible guztion gusto eta nahiak asetzea.

Urte osoa daramagu hilero Eibarko berriak eta kontuak kaleratzen ahalik eta egunkarietan argitaratzen dituzten informazio ezberdinak ikutzen, tratamendu berezia erabiliz geure lantxoak sortzerakoan. Informatzea dugu helburu, herriko gertakizunei behar duten garrantzia emanez eta gai bakoitzaren berezitasun eta faktore guztiak kontutan izanik, sakontasuna eta interesa lortu asmoz. Baina guzti hau gure interes edo helburu bada ere, guk "...eta kitto"koek irakurle eibartarren eritzia jasotzea nahi genuen, horregatik bururatu zitzaigun inkesta egitearen ideia; bestalde urte osoa igaro ondoren balantzeak egiteko mementu aproposa dela pentsatu genuelarik.

Galderak zehatzak ziren, ezaguera, eritzi orokorra, zer duzuen gustokoena, zer kenduko zenuketen eta gerora begira zer-nolado aldaketak edo gehikuntzak egin behar diren jakitea. Galdera hauen arabera datu piloaz jabetu gara aurrerantzerako oso baliagarriak izango ditugularik.

Lehendabizi, datuen arabera, "...eta kitto"ren presentzia normalizatua izateaz gain, ezagueraren portzentai kopurua gorantz doa eta euskera hutsean idatzia badago ere, honek suposatzen dituen muga eta abantailak baztertuz, eibartar gehienok badakigu hilero kalean dugula.

Bestalde "...eta kitto"ri buruzko eritzi orokorra eskatzerakoan, ia erabateko oneritzia jasotzeak biziki poztu gaitu. Halaere badira apurren batzu inolako kritikarik jaurti gabe ez zaiela interesatzen eta oso txapuzeroa dela aipatu digutenak inolako alternatibarik eskeini gabe portaera errezenean babestuz.

Argazki inkestaren arrakasta ukaezina da eta nabarmenki azaldu zaigu irabazle, baina honen atzetik metro batzutara Eibarko pertsonaiei egiten zaizkien elkarrrizketak kokatu dira eta aurrerantzean arriskua suposa dezake lehen postu horretaz jabetzeko. Asko eta asko dira inolako arazorik gabe lau orriak goitik behera irakurtzen dutenak atal espezifiko batetara mugatu gabe, ez duelako aparteko esfortzurik eskatzen. Aipatzekoa da baita ere, jende zaharraren artean gehienbat, Eibarko pertsonaiei egiten zaizkien elkarrizketak atsegin dituztela, honen arrazoia eibartar euskeraz idatziak izatearena da. Argazki inkestak hainbesterainoko arrakasta izatearen arrazoia jendearen"morbo" gogoa dirudi, horrela auzokidea edo lantegi laguna edota eskola lagunaren argazkia eta eritziak ikusi eta irakurtzeak aldizkari batean gogoko izaten dugu gero beraren kontura broma eta barreak egiteko aitzaki ezin hobea delako. Elkarrizketak ere interes handikoak izaten dira, batez ere elkarrizketaren barrena saltsa pixka bat ageri bada.

Salbuespen bakarra ezik, beste guztiok ez duela ezer kentzekorik aipatu diguzue eta salbuespen bakar hori publizitatea kentzearen aldekoa zen. Gure jarrera pertsonala ere horren aldekoa izanik, gaur egungo bizimodua ikusirik ezinezkoa litzaiguke publizitaterik gabe aldizkaria finantziatzea. Kontutan izan behar da kostoak handiak direla eta gainera dohainik izatean diru iturriak publizitatetik lortutakora mugatzen dela.

Kakoa gerora begira dator eta galdera hau egiterakoan hainbat proposamen jaso genituen gehienak ere orri kopurua gehiagotzekoaren aldekoak. Argi eta garbi dago orri kopuruaren gehiketak gai gehiago eta ezberdinen sakontzea posibilitatuko lukeela, baina orri kopuruaren gehitzearen atzetik diru kontuak ezinbestez azaltzen dira eta udaletxearen babespean aurkitu arren, lehen esan bezala publizitatearen beharra derrigorrezkoa dugu finantziaketari eta kostoei aurre egiteko. Aurrerantzean arlo guztiak nahiz kirola, zinema, musika eta beste hainbat gairen erakusgarri bihurtzeko lanetan arituko gara.

Azkenik guztion laguntza eskertu eta ea oraindik aldizkaria gustokoa ez dutenak geureganatzen ditugun. Baita ere aipatu behar "...eta kitto" aldizkaria ezagutzen ez dutenen %38'31 ia guztiak euskera ezagutzen ez dutelako arrazoia agertu zigutela aldizkaria ez ezagutzeko.

ELKAR

ARGITALETXEAK BABESTUTA

3 Liburu bikainen aurkezpena

.**MARTXOAK 27:** "Txakur zaunkak atean" (J.M. Elexpuru)
.**APIRILAK 3:** "BABILONIA"
.**APIRILAK 10:** "GURE MENDIETAKO BIDE EZEZAGUNAK" (M. Angulo)
(Autore eta kritikoen presentziarekin)

ELKARrekin kulturgintzan


bankoa

Gipuzkoako Industri Bankoa

INTERES HANDIKO KONTU KORRENTEAK
ERRENTAGARRITASUN PAREGABEA

ZULOAGATARREN, 7 TEL: 113940

MARTXOAREN 8.a EMAKUMEAREN EGUNA



Martxoaren 8.an, ohizkoa den bezala, emakumearen eguna ospatuko da. aurten egun horretan izango diren ekintzak ezagutzeko, emakumearen inguruan lan egiten duen eibarko udaleko emakumearen sailarekin, eta baita eibarko emakumeen asanbladarekin ere kontaktuan jarri gara.

Eibarko Udaleko Emakumearen Sailak urte bat eta 3 hilabete darama funtzionatzen, nahiz eta kale mailan ez den gehiegi ezagutzen, bere arduraduna den Enkarna Martinek adierazi zigunez. Departamentu honen helburua bertara joaten diren emakumeei laguntzea eta asoziazionismoa bultzatzea litzateke.

Iaz egin zen bezala, Emakumearen Egunaren ospakizuna dela eta, Emakumearen Sailak zenbait ekintza antolatu ditu. Alde batetik osasunari buruzko hitzaldi batzuk egongo dira: Martxoaren 7.an Donostiako Instituto Onkologikoko medikua den Maria Jesus Mitxelena izango da hizlaria, eta Martxoaren 14.ean instituto berbereko ginekologoa den Lurdes Aristiturri. Hitzaldi bi hauetan garatuko den gaia "minbizi edo kantzerraren prebentzioa»" izango da. "Emakumea eta Osasuna"ri buruzko ihardunaldi hauen helburuak emakumeek aktiboki parte har dezaten, lagunartetasuna bultzatzea eta baita emakumeek interesatzen zaizkien gauzak azal ditzaten ere lirateke, Enkarna Martinek aditzera eman zigunez.

Bestalde, Marxoaren 1-etik 15-erarte "Emakume eta Lana" izena daraman argazki-erakusketa antolatu du udal departamentu honek, hemen izen berbera daraman argazki-lehiaketara aurkeztutako argazkiak erakutsiko direlarik.

Gainera, Martxoaren 8.an izango den hitzaldi batetan emakumearen egoera lan merkatuan aztertuko da, bertan sindikatu ezberdinetako kideek parte hartuko dutelarik.

Aipaturiko guzti honetaz gain, Martxoaren 8-rako etxeetara Emakumearen Sailaren berri ematen duten eta parte hartzera gonbidatzen duten txartel batzuk bidaliko dira. Azkenik, baliteke egun honetarako proiekzio zinematografikoren bat eskeintzea, Enkarna Martinek esan bezala.

Bestalde, Eibarko Emakumeen Asanbladari dagokionez, kolektibo honek ere egitarau zabal bat prestatu du Emakumearen Eguna ospatzeko. Horrela, Martxoaren 8an Bilboko manifestaldira joateaz gain, sexualidadeari buruzko hitzaldi batzuk antolatu dituzte bai Eibarko Institutoan bai Unibertsitate Laboralean.


Hurrengo egunean, Martxoaren 9.an hain zuzen, "Zer nahi dute emakumeek" izena daraman hitzaldi bat eskeiniko da Udaleko Kultur Aretoan, honetan dependentzia afektiboaren gaia ikutuko delarik.

Martxoaren 10.ean, gabeko 11-etan nesken rock-kontzertua egongo da Hilbehęra tabernan.

Azkenik, esan beharra dago Emakumeen Asanbladak antolaturiko autodefentsa ikastaroa Martxoaren 3.an bukatuko dela. Ikastaro hau Otsailean zehar garatu da eta bertan 20 bat neska gaztek parte hartu dute.


IRUDI BITXIAK

Orain dela egun gutxi arte Udaletxeko kultura aretoan, Eibarko iturriei buruzko erakusketa izan dugu ikusgai. Erakusketa honetan iturri guztien informazio bikaina eskeintzen ziguten. Guzti honi oso ondo deritzogu baina gaur egun ur arazoak direla eta iturriek ere ez dute aintzinako bizitasuna ura isurtzerakoan. Honez gainera badirudi ez dugula Eibarren iturri gehiegirik beraietatik edateko modukoak, gehienak ere ur kutsakorra jaurtitzen dutelako. Horren kasu bat Ardantzako iturria dugu. Betidanik edan ohi izan dugu Ardantzako iturritik eta nahiz eta gaur egun kartel batek ez edateko gomendatzen badigu ere iturri honetatik pasatzerakoan ura edateko egarria badugu ez gara batere damutzen bertatik edaterakoan eta orainarte behintzat bizirik jarraitzen dugula esan behar.




ERREDAKZIOAREN OHARRA

«**... Eta Kitto**»ren erredakzio taldekoak, irakurlearen txokoa sekzioa mantentzearen alde agertzen bagara ere, zuen kolaborazioa beharrezkoa dugu. Horretarako animatzen zaituztegu nahi duzuenaren gainean idatz dezazuen.



Saskibaloia modan dago. Telebistatik ia egunero ameriketako jokalari ikusgarrien jokaldien dizdirak itxutzen gaituzte. Moda horren erakusgarri Amaña auzoan dagoen saskitxoa dugu. Egunero hainbat mutiko baloia besapean dutela beraien "idoloen" jokaldiak errepikatzeko gogo biziz aritzen dira. Partiduak dituzte kotxeak direla eta, baina oztopoak inoiz ez dira gaindiezinak eta traba guztiei muxin eginez saskiratze gehien lortzen saiatzen dira. Kotxeen oztopoak gehiegizkoak direnean ez dago udaltzainei deitzea besterik ...eta kitto. Hauek berehala deituko diote gruagidariari eta honek oztopoa desagertaraziko du.



SARIKETA

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno hori hala bada IKUSONIKek oparituko duen diska irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!


EIBARKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA
«...eta Kitto Sariketa»

13. Aleko sariketaren erantzuna "ROMUALDO GALDOS KALEAN DAGO" SARITUA: "Karmaninoff" 116845 Telef. duena. HURRENGO SARIKETARAKO MARTXOAREN 15ERAKO BIDALI BEHAR DIRA ERANTZUNAK. SORTE ON !!!

IKUSONIK — **DISKA SALDUENAK**

Euskeraz
Benito Lertxundi "Pazko gaierdi ondua"
Mikel Laboa "12"
Xabi eta Piter "Funtzioa"
Oskorri "Datorrena datorrela"

Erdaraz
Phil Collins "But seriously"
The Christians "Colour"
Luis Cobos "Opera Magna"
Pavaroti "Tuto"



BIXENTE MARTINEZ - Oskorriko gitarristia

"Musikia da nere bizitza"

Oiñ dala urtetxo dexente "Oskorri" taldian gitarrista moduan hasi zan Bixente Martinez-ek bere musika zaletasunaz ta Eibarko giro kulturalaren gañian eiñ dogu berba zelan dabizen gauzak ikusteko.


"Oskorri"zelan hasi zan.

"Oskorri 1.971-an jaixo zan, badira urtiak!! Ni sartu nitzan 1.973-an edo hor inguruan ta... baña... lenaotik hasitta euan. Orduan gauzak diferentiak zian: ez zan oiñgo moduko giro musikalik ta... ez euan ezer. Musika mallia oso apala zan. Inportantiena euskeraz eittia zan, euskeraz kantatzia ta... kulturalmente girua desastrosua zan frankismua zala ta. Ta hor ba... gu... pionero izan giñan.

Lelengoetan zentsuriakiñ ta... izan zian makiña bat problema. Baiña 73-an hasi ta Franco hil zanian gauzak asko zabaldu zian ta askoz errazaua izan zan: kantuak ta holako gauzak hobetotxuau jari zian. Ordutik aurrera guk eztou euki problemarik."

Kanpoko musikiak izandako eragiña.

"Batez be europar tradiziño musikala ta gure musikian artian hartu-emon haundixa daola pentsatzen dot nik ze... Euskal Herrixa beti izan da pasulekua Europatik Estatura ta Estatutik Europara be bai ta... hamengo musika tradiziñozkuak hartu-emon dexentia daka Atlantikoko herrixetan eitten danakin.



•Gitarria jotzen Eibarren hasi nitzan.

•Musikako ofiziua ezta segurua.

•Hego Ameriketarako laguntzarik ez!!

•Kulturia Eibarren: lotsagarrixa!!

Gure musikia danetarikua gustatzen jakuenentzako musikia izango litzake. Askotan gertau izan dana izan da, nastau eitxen diala musikia ta Euskadin gertatzen dianak."

Europatik kanpora urteerak eitteko prest baña... laguntzarik ez!!

"Europatik kanpora urtetzeko asmua badao. Guk pentsatzen dogu politxa izango zala Hego Ameriketara juatia ze... han euskaldun mordua dao ta... guk pentsatzen dou hango jente euskaldunak buruan dakana txistua ta tanboliñakin kalian zihar gabizela dala ta... hori ezta holan!! Guk Eusko Jaurlaritzari bialdu genetzan Hego Ameriketara juateko proposamen bat baña ondiokan erantzunik be eztosku emon.

Gure asmua zan ez bakarrik gu juatia baizik ta: teatro pixkat grupo rokeruak, bakarrik kantatzen dabenak, hamengo disko ta liburu etxiak... horrek danok eruan eta gauzia izango zan pixkat gaur egunian Euskadin eitten dana azaltzia. Hamen kulturatxo bat badaola ikusi daixiela, gauzak asko kanbixauta daozela konturatu daitxezela. Hoixe izango zan batez be gurako genduana. Europa mallan be ez zan egongo txarto gure kultura zeozertxo erakustia, batez be kapital haundixetan: Erroman... Parisen... Alemania aldian..."

Gitarrista moduan... Eibarren hasittakua.

"Ni hamentxe, Eibarren hasi nitzan pixkat eh... holako... metodo arraro batzukiñ gitarra española etxian ikasten. Ta gero ba... behiñ etorri zian Oskorrikuak Eibarrera ta... ondo enrollau giñan ta zelan nik nahi neban zehozer ezttia, ba gitarra elektrikua joten hasi nitzan orduantxe. Euskal musikan ta orduan denporan oso arrarua eitten zan kitarra elektrikuak zekan musikia ta hori zala ta ba... nik kitarria modu fiñian jotzeko alegiñak eiñ nebazan."

Letretan eztakau gauza fijorik.

"Letrak generalian guk eztouz eskribitzen. Danetarikuak izaten dia: ez da beti bardiñ eitxen: batzutan ba... liburun batian zeozer topau ta hari musikia jartzia izaten da, hurrenguan musikia eiñ ta gero letria jarri ta... holakuetan eztakau gauza fijorik."

Musikiak eragiñ haundixa daka profesiñua izan ezkero.

"Hasikeria ekitzia beti izaten da gogorra. Gañera Euskadin oso giro berezixa bizi zan ta... orduan ez zan kobratzen asko. Orduan danak ibiltzen giñan giro -jatorrau- baten sartuta.

Baña ikusten danian zelako zalla dan gauzia, profesionala izan bihar zarala ikusten dozunian... bertan emon biozuz ordu guztixak.

Ta ni ibilli naiz ba, euskerazko klasiak emoten ta bestelakuak be eiñ izan ditxut bizitzeko. Oiñ gauzak hobetuau doiazela emoten dau baiña egixa esatekotan esan bihar da, honek ofizio honek eztakala seguridaderik. Ze batzutan arrakastia bada... hurrenguan ostera lanik barik zaoz ta... lanik ez badao eztao jaterik. Musikan exitua dakanak irabazten dau baña bestela jai dao!!

Gu zazpi gara taldian, ta zazpirok gara profesionalak ta musikara guztiz dedikatzen garanak.

Dana dalakua, musikan ta konziertuak eitxerakuan inportantiena zer eitten dan, zer emoten dan da.

Etxeko bizitzan ganian zer esanik pez: batzutan asko egoten gara etxian ta beste batzutan iñor bizi bada be ezin dou jakin lanan-lanaz. Lan asko daonian denpora askuan etxian sartu be eiñ barik. Gero gure lanak eztia izaten abestutzia bakarrik, lana bittan zatitxu leike: batian taldekuena egongo zan ta bestian bakotxak bere etxian eitxen dabena. Baiña dana dala ta kostatakua kostauta, niri neure ofiziuak emoten destana neuk emoten deutsotena baiño gehixau dalakotan nao. Neretako musikia da nere bizitzia."

Eibarko giro kulturala... benetan lotsagarrixa!!

"Eibar batek daozenak baño gauza gehixao bihar ditxu. Lokalak biharko zian gauzak organizatzeko. Ni asko ibilli naiz Euskal Herrixan zihar ta Eibar baño txikixauak dian herrixetan gauza politxak eta dexentiak idusi doraz. Musika aldetik... lotsagarrixa da!! Eztao bape be lekurik nun edo nun joteko aukeria eukitzeko. Zelan Amaia pikutara juan dan, Coliseua be hor dabill ta kulturala be dauan moduan egotia... Eibarkua lotsagarrixa da!! Hori danon errua da. Gauzak urtietan eiñ bihar dia jentia juan daien, ze... jentia lelengotan alperra da. Nik pentsatzen dot hor udaletxiak be euki dabela kulpia instalaziño onak holan alperrik galtziagaitxik. Ta bestelako jentiak dirua tabernetan gastatzen dau, kulturan be gastau eiñ bihar da diruà!! Udaletxiak be gastau bihar leuke baiña... eztau gastatzen!!

Kili Kili
GOSARIAK
PLATER KONBINATUAK
GOIZEKO 7RETATIK ZABALIK
EIBARKURUTZEA TL 112401


A. ELORZA
ORTOPEDIA
Tratamendu egokiak
ZEZENBIDE, 6 TI:110070

Careaga
Bitxi eta Erloju-denda
Arte-lanak eta grabatuak
Bidebarrieta, 10. Tel: 118045

LEGARRE GARAJEA
LADA ZERBITZU OFIZIALA
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
LEGARRE, 2 TI 116371

ETESA
KOMERTZIALA
Bulego-materiala eta Altzarian
Bidebarrieta, 66 TI: 121973-74

aRATuStE manGa, ardoari zanga




Ailegatu da hain gustokoa dugun jai hau! Jende askoren ustez aratusteak urteko jairik hoberenak dira, parranda ugari egiteko aukera, baita mozkor galantak harrapatzeko ere bai. Zihur asko eta asko artikulu hau irakurtzen ari diren bitartean mozorroturik egongo dela edo aje demasarekin joan den eguneko mozkorra pasatu ezinda. Hala ere, badago alde egiten duen jendea ere, bai mendira, eskiatzera edo jai hauek buruhauste demasa sortzen dielako (ideia pentsatu, jantzia lortu...) edo ez zaielako kalean sortzen den giroa atsegin, edo dena dela, parranda handia egin beharrean nahiago dutelako asteburu hau lasai igarotzea.

Aratusteak Eibarren aspalditik ospatzen dira, betidanik egon da mozorrotzeko zaletasun hau. Etxean arropa zaharren bat hartu eta desberdin joatea zen helburu bakarra. Orain gauzak desberdinak dira, nahiz eta batzuk etxean daukatenarekin konpondu, jende gehienak gero eta diru gehiago gastatzen du disfratzetan. Adibidez, **ugarteburu-ko dendariak** esan digunez edozein traje arruntek daraman telak 1500-2200pta balio du; honez gain jostun batengana eramaten baduzu 3000 pta-tik gora kobratzen dizu. Eta gero kareta, margo edo konplementuak kontutan hartzen baditugu zifrak asko igotzen dira. Lehen, gerra aurretik, karroza eleganteak egoten ziren orain hornituriko kotxe zaharrak edo higitoen karroak egiten duten antzera. Gaur egun koadrilak direla eta kriston anbientea sortzen da herrian. Hor daukagu adibidez errealistak urtero antolatzen duten jaia, aurten "ura mesedez" gaiarekin, ihaz San Blas-ekin...**Karmen Apellaniz errealistak** esan digunez "Orain dela zortzi bat urte erreala piztu piztua zegoela aprobetxatuz Errealeko ekipoaz mozorrotzea bururatu zitzaigun, eta handik aurrera urtero aritu gara zerbaitetan. Lehen hamar bat lagunek osatzen bagenuen taldea, orain 50-55 pertsona gaude saltsa honetan parte hartzen."

Eta nola ez aratusteak hornitzeko, besteetan bezela "Kili-Kolo", antzerki taldearen antzeztapena aipatu behar da. Betiko sardinaren hileta egingo dute, baina aurten berrikuntzez, zeren sardina failetan erabiltzen den kartoiz egina eta handiagoa izango da; txalapartaren soinuz girotutako antzerkia egingo dutelarik Untzagako plazan.

Baita ere kuadrilen disfraz txapelketa izango da, talde honek antolatuta. Epaileak beraiek edo besteren bat izango denaren dudaz.

Azken finean, beraien lan guzti hau guk jai hauek ongi pasa ditzagun.



ZER IRUDIZEN ZAIZKIGU ARATUSTEAK?




Felix Medina. 57 urte. Langilea.
Oso ondo. Ni ez naiz mozorrozten nagusia naizelako.Ordea nere semealabak bai. Karnabalak ongi daude, baina besteari errespetuz tratatu behar zaio. Nik ideologia guztiak errespetatzen ditut, besteak ni errespetatzen nauten neurrian. Aratusteak herriaren askatasunaren sinbolo dira.



Orkatz. II urte. Adela. 18 urte. Roberto. 8 urte. Ikasleak.
Ondo daude aratusteak. Txerif eta tenistarenak gustatzen zaizkigu gehien. Asteartean edo ostegunean (ez dakigu ongi) gelara mozorroztuta joaten gara baita kalera ere.



Javier Rubio. Enpresaralezko ikaslea. Soldaduzkan. 25 urte.
Eibarko jairik onenak dira. Normalean jazten naiz, baina aurten soldautzan nago eta...



Roberto. Inprentan lana. 44 urte.
Asko gustatzen zaizkit aratusteak. Beti disfrasatzen naiz. Afiladore moduan mozorroztuko naiz aurten. Jaï ederrak dira, onenak. Gainera gure juergia da



Aitor. 30 urte. Langilea.
Ondo daude. Lehen jazten ginen, orain ez. "Zahartxoak" egin gara... Baina nere ustetan jai onenak dira. Beharbada karnabaletatik egun onena asteartea da; baliteke hurrengo egunean lanera joan behar garelako dela.



Tere Unanue. 20 urte. Ikaslea.
Ongi daude jai hauek. Gainera azterketa garaian izatean, pixkat beraietaz ahazteko oso ondo. Jendeak oso ongi pasatzen du.



Alex aristegi. 22 urte. Ikaslea.
Ez zaizkit gustatzen. Jairik aspergarrienak dira. Ez dit ematen grazia kalera irtetzeak. Jazten naiz. Ongi daude jaiak direlako, baina...



Eli Lacontxa. Udaletxean lanean. 22 urte.
Jende asko dago, agobioa da. Mozorrozten naiz. Eibarren askotan konpetentzia bihurtzen da, tonteria asko dago, jantzi politena eta garestiena eraman nahi delako. Baina bizitza bi egun dira eta ala! Ongi pasa!!!

MARTXOKO AGENDA

◦KIROLA

ZIKLISMOA
Eibarko Klub Ziklistak antolatuta:
4an: UDABERRI SARIA. Estatu maila. Gazteak.
25an: ABASCAL MEMORIALA. 1º Urteko kadeteak.

MENDI IRTEERAK
Klub Deportiboko Mendizale taldeak antolatuta:
10an: Eibar - Zestoa ibilaldia.
31an: Zestoa - Igeldo.

SKIa ASTEBURUETAN FORMIGAL:
3/4an IRTEERAK: Larunbateetan, goizeko 4,30etan
10/11an PREZIOA: Bazkideak: 8.000.- Pzta./Beste.: 8.500.- Pzta
17/18/19an Autobusa/Hotela pentsio erdian eta Forfait BARNE
24/25an Ikastaroak eta materiala alokatzea AUKERAN
INFORMAZIOA: K. Depor. Ski Taldea: 11 19 04

UMEENTZAKO IRTEERAK

11an: Bianditz (Oiartzun). IRTEERA: Goizeko 8,30etan/BUELTA: Eguerdirako IZENA EMATEA: K. Deportiboan. Eskola bakoitzean edo 11 19 04 Astelehen eta asteartetan 7,30etatik 8,30etara.

◦UDALEKO EMAKUMEAREN BULEGOAK ANTOLATURIK

ARGAZKILARITZA

1tik-15era: "EMAKUMEA ETA LANA"ri buruzko ARGAZKI ERAKUSKETA eta LEHIAKETA
8an: Aurrean aipaturiko LEHIAKETAREN SARI BANATZEA.

HITZALDIAK

GAIA: MINBIZIAREN PREBENTZIOA
Kultur Aretoan. Arrats. 4retan
7an: Onkolojia Institutoko Medikua Mª Jesus Mitxelena
14an: Ginekologoa. Lourdes Aristizturri

◦UDALEKO KULTURA SAILAK ANTOLATURIK

Aratusteak
Otsailak 24: Txistulari Bandaren kalejira eta kontzertua, BERTSOLARIAK Untzagan, HERRI KIROLAren norgehiagoka, Umeentzat, maskaraka, koko-jantzi tailerrak, Fanfarria, MOZORROTUTAKO KUADRILEN ikuskizuna, BERBENAK: Untzagan, Urkizun, Ibarkurutzean, Anbulategi aurreko parkean.
Otsailak 25: Txistulari Bandarekin "ARATOSTE ZORTZIKOA", Umeentzako ikuskizuna, BRIEL magoa Amaña Zineman, kale animazioa BOST AXOLA taldearekin
Otsailak 26: Jokoak Umeentzat Untzagan, KARTEL ETA APAINKETA LEHIAKETEN SARIAK EMATEA BATZAR ARETOAN
Otsailak 27: Urkizun, Umeentzat: Pottokak, bonba japoniarrak eta suzko-zezena. TEATRO DEL AIGUA taldearen emankizuna. KALE ANIMAZIA. Sardiñaren entierrua Untzagan KILI-KOLO TALDEAREKIN.

Erakusketa

Martxoaren 17tik-29ra: Felipe Iguiniz ARGAZKIAK

◦XIII ANTZERKI IHARDUNALDIAK, NARRUZKO ZEZEN SARIA

3TIK 28RA. UNIBERTSITATE LABORALEAN, bertan Espainia, Euskal-Herri eta atzerritik etorritako 16 Talde parte hartuko dutelarik. Beste batzuren artean; "TEATRO DEL ALBA", "LA QUIMERA DE PLASTICO", "MAŔKELIŃE".....
.....
EUSKARAZ EMANGO DIRENAK HAUEXEK DIRA:
8AN: Osteguna: GEROA TALDEA - "DURANGO AMETS BAT 1439" Obrarekin
17AN: Larunbata: AMA BEGIRA ZAZU TALDEA - "AMA BEGIRA ZAZU" OBRAREKIN
24AN: Larunbata: ITZURINGO UHINAK "DEBALDE DA AMETS EGITEA" Obrarekin

ELIKADURA IKASTAROA

EUSKARA BATZORDEAK Martxoan zehar ELIKADURARI buruzko ikastaro bat burutuko du.
URKIZU Auzoan kokatzen den areto batetan. Fetxak: 13 - 20 eta 29 (?). Argibide gehiago: 11 80 64 Telefonoan.

LIBURUAREN AURKEZPENA.

MARTXOAREN 27:
Juan Martin Elexpuruen "Txakur Zaunkak atean" liburuaren aurkezpena Udalean.

NORK - ZER

Koordinatzailea:
Fernando Muniozguren
Erredakzio-taldea
Ana Aizpurua
Joseba Zinkunegi
Mireia Ugarteburu
Idoia Irazola
Fernando Muniozguren
Amaia Muruamendiaraz
Argazkilariak
José Valderrey
Mireia Ugarteburu
Maketazioa
José Valderrey
Joseba Zinkunegi
Komikia
Ander Gisasola
Inprimaketa
Gertu